# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

# ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia | Iruñean, 1997ko abenduaren 18a | 86 ZK.

## A U R K I B I D E A

A SAILA:
**Foru Lege Proiektuak:**
—Foru Lege proiektua, Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoaren zenbatekoa eta banatzeko formula 1998ko eta 1999ko aurrekontualdietarako ezartzen dituena. Toki Administrazioko Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).
—Zenbait zerga, Pertsona Fisikoen Errentaren gainekoa, Ondarearen gainekoa, Sozietateen gainekoa eta Oinordetzaren gainekoa, alegia, hein batean aldatzen dituen Foru Lege proiektua. Aurkeztutako emendakinak (7. or.).
—Toki azpiegituren alorreko 1997-1999 Plan Bereziari buruzko Foru Lege proiektua. Aurkeztutako emendakinak (18. or.).

E SAILA:
**Jabeldurak eta Mozioak:**
—Ebazpena, Nafarroako Gobernua premiatzen duena bigarren olio-errota eraikitzeko ikerketa teknikoa egin dezan. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak onetsia (30. or.).
—Ebazpena, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Foru Lege proiektua aurkez dezan negutegi-efektua sortzen duten gasen isurketak gutxitzeko. Lurraldearen Antolamendu, Etxebitiza eta Ingurugiro Batzordeak onetsia (30. or.).
—Klima-aldaketari buruzko deklarazio politikoa. Bozeramaileen Batzarrak onetsia (31. or.).

F SAILA:
**Galderak:**
—Zarrakazteluko La Barbadako sakanean dagoen hondakindegiari buruzko galdera, Jose Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (32. or.).
—Corellako udalerrian garbiketa tunel bat jartzeari buruzko galdera, Jose Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (33. or.).
—Nafarroako erremolatxaren laborantzaren egoerari buruzko galdera, Jose Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (34. or.).
—Nafarroa ekaitzen kalteak konpontzeko Estatuak ezarri laguntzetara bildu ezinari buruzko galdera, Jose Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (35. or.).

**A Saila:**
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

# Foru Lege proiektua, Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoaren zenbatekoa eta banatzeko formula 1998ko eta 1999ko aurrekontualdietarako ezartzen dituena

*TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez, Toki Administrazioko Batzordeak Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoaren zenbatekoa eta banatzeko formula 1998ko eta 1999ko aurrekontualdietarako ezartzen dituen Foru Lege proiektuari buruz eman duen Irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Proiektu hori 1997ko azaroaren 17ko 76 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, Osoko Bilkuran, emendakin hauek defendatzen ahalko dira:

– 2, 11, 22, 23 eta 27 zenbakikoak, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztuak.

Emendakin horiek 1997ko abenduaren 9ko 83 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Iruñean, 1997ko abenduaren 13an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## Foru Lege proiektua, Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoaren zenbatekoa eta banatzeko formula 1998ko eta 1999ko aurrekontualdietarako ezartzen dituena

ZIOEN AZALPENA

1978ko Konstituzioak, Estatuko lurralde antolamenduaz mintzo delarik, 140. artikuluan udalen autonomia bermatu ondoren, 142. artikuluan aurreikusten du, ezen Toki Ogasunek behar adina baliabide eduki beharko dituztela legeak kasuan kasuko korporazioei eratxikitzen dizkien eginkizunetan jarduteko eta gehienbat zein bere tributuez baliatuko dela, baita Estatuaren eta Autonomia Erkidegoen tributuetan parte hartzekoez ere.

Uztailaren 2ko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeak, 259. artikuluan, xedatzen du, bere eskumenak erabiltzeko eta Nafarroako toki entitateek dagozkien helburuak lortzeko, Toki Ogasunak behar dituzten baliabideez hornituko direla. Baliabide horiek Toki Ogasunari buruzko Foru Legearen bidez arautuko direla, Nafarroako toki araubidearen alorra den aldetik, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 18.2 artikuluan aurreikusi bezala. Horrez gain, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko 260. eta 261. artikuluek xedatzen dute Toki Ogasunek Foru Komunitateko tributuetan parte hartuko dutela.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 123. artikuluak zehazkiago arautzen ditu Nafarroako Ogasun Publikoan parte hartzekoaren nondik norakoak eta ezartzen, ezen udal agintaldi bakoitzeko lehen urteko azken hiruhilekoan, Nafarroako Gobernuak, Toki Araubideko Foru Batzordeak txostena eman ondoren, Nafarroako Parlamentura igorriko duela, kasuan kasuko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrei buruzko proiektuarekin batera, Toki Entitateek Nafarroako zergetan hurrengo lau aurrekontualdietarako parte hartzeko fondoaren zenbatekoa ezartzen duen arauzko proiektu bat, baita fondo hori banatzeko formula ere, zuzentasun eta proportzionaltasun hatsapenak aintzat harturik.

Lehengoa betetzeko asmoz, Foru Lege honek, lehenengo eta behin, toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoan parte hartzeko fondoaren zenbateko osoa ezartzen du eta, ondoren, zenbateko hori handitzeko sistema, transferentzia arruntak eta bestelako laguntzak deritzen kontzeptuetan. Gehikuntza hori Nafarroako Foru Komunitateko

Kontsumorako Prezioen Indizearen igoera portzentualaren adinakoa izanen da, hots, ekainetik ekainera bitartekoaren adinakoa.

Ekitaldi bakoitzerako esleituriko partaidetzaren zenbatekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko 123. artikuluko 2. idazatian xedaturikoarekin bat banatzen da, transferentzia arrunten, kapital transferentzien eta bestelako laguntzen bidez.

Transferentzia arruntak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko 123.3 artikuluan xedaturikoarekin bat, udalen eta kontzejuen artean banatuko dira. Banatzeko formulak zuzentasun eta proportzionaltasun irizpideak kontuan hartu beharko ditu, aipatu hatsapen nagusiak zehazten dituzten parametrotan oinarriturik. Kapitulu honetan udalek Estatuarekin hitzarturik ez dauden zergetan parte hartzeko lehengo kopuruari dagokion zenbatekoa aipatzen da. Zerga horiek Nafarroako Foru Komunitateak kudeatuko ditu 1998tik aurrera, Hitzarmen Ekonomiko berriaren arabera, Estatuak gainerako zerga hitzartugabeengatik egin behar duen banaketa deusetan galarazi gabe.

Hori horrela, Foru Lege honek Transferentzia Arrunten Fondoaren banaketa dakar, toki entitateen gastuaren adierazgarritzat jotzen diren aldagaien arabera banatzeko ehuneko 86ko portzentaia harturik eta gainerako ehuneko 14 zerga bidezko dirusarrerak eta herrilurretako aberastasuna eskuratzeko ahalmena erabiltzeko mailaren adierazgarritzat jotzen diren aldagaien arabera. Zehazkiago, formula berriak bizilagun bakoitzeko gastu arruntaren, haren osaketaren, adinkako populazioaren, langabeziaren, hiri lurzoruaren zabaleraren, zerga ahaleginaren eta herrilurren balio katastralaren arabera ponderaturiko populazio aldagaiak hartzen ditu oinarritzat, hots, lehen aipaturiko legezko aurreikuspenak hartzen ditu kontuan.

Arau honek tratamendu ezberdina du udaletarako eta kontzejuetarako, kasuan kasuko eskumenen arabera, Udalen eta Kontzejuen arteko eskumen eskuordetza eta horren ondoriozko baliabide esleipena deusetan galarazi gabe.

Hala ere, banatzeko formula berriak ez du xede orain arte indarra zuen sistema erabat haustea. Horregatik, beharrezkotzat jo da Fondotik datozen dirusarreren bermea ezartzea, haren abiapuntua, orokorrean, 1997ko ekitaldian jasoa delarik.

Kapital transferentziei dagokienez, haien banaketa 1997-1999rako Toki Azpiegituren Hirurteko Planari buruzko apirilaren 2ko 3/1996 Foru Legean ezarria da, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko 123. artikuluko 4. idazatiari darraiolarik.

Fondoa banatzeko azkeneko kapituluari bestelako laguntzak deritzo eta bertan Iruñeko Udalari "Iruñeko Hiriko Hiriburutza Agiria" kontzeptuagatik dagokion dotazioa eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 72.2 artikuluan interes amankomunak babestu eta sustatzeko osaturiko toki entitateen federazio edo elkargoendako laguntza ekonomikoei buruz dagoen aurreikuspena betetzeko dotazioa agertzen dira.

Azalpen honen hasierari lotuz, Foru Lege honek hein batean betetzen ditu garaiz legezko aurreikuspenak. Izan ere, 1998ko eta 1999ko aurrekontualdiak ukitzen ditu, azkena delarik udal agintaldia bukatzen deneko data.

**1. artikulua.** Toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan 1998ko ekitaldirako parte hartzeko Fondorako guztira 22.529.888.000 pezetako dotazioa ezartzen da, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan agertuko dena.

**2. artikulua.** 1998ko ekitaldirako esleituriko partaidetzaren zenbatekoa honelaxe banatuko da:

1. Transferentzia arruntak 15.464.464.000 pezeta.

2. Kapital transferentziak 5.066.000.000 pezeta.

3. Bestelako laguntzak:

a) Iruñeko Udalari, Hiriburutza Agiriagatik 1.976.378.000 pezeta.

b) Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari 23.046.000 pezeta.

**3. artikulua.** 1999rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan transferentzia arruntei eta bestelako laguntzei dagokienean parte hartzeko fondorako kontsignaturiko zenbatekoa izanen da kontzeptu horietarako aurreko artikuluan aurreikusiriko kopuruari Nafarroako Foru Komunitateko Kontsumorako Prezioen Indizearen, 1997ko ekainetik 1998ko ekainera neurtuaren, portzentaia aplikatzearen ondoriozkoa gehi 1997-1994ko Toki Azpiegituren Hirurteko Planari buruzko apirilaren 2ko 3/1996 Foru Legearen bidez ezarririko kapital transferentziei dagokien kontsignazioa.

**4. artikulua.** 1. Transferentzia arruntetarako partaidetzaren zenbatekoak oinarritzat hartuko ditu banatzeko formula ezartzeko ondoren aipatzen diren adierazgarriak.

2. Ehuneko 62 banatuko da bizilaguneko gastu arruntaren arabera ponderaturiko populazioarekiko zuzeneko proportzioan. Gastu hori 1994ko eta 1995eko ekitaldietako toki entitateetako kontu bateratuen batez bestekotik lortzen da, populazio tarteen arabera gehiturik, Eranskinean agertzen den 1. koadroaren arabera.

3. Ehuneko 24 banatzen da toki enteen gastu arrunt funtzionalak kontuan harturik, gastu arrunt guztiarekiko proportzioan, 1994ko eta 1995eko ekitaldietako toki entitateen kontu bateratuen batez bestekoaren arabera, Eranskinean agertzen den 2. koadroari jarraikiz.

a) Gastu orokorrei esleiturikoa osaketaren arabera ponderaturiko populazioaren arabera banatuko da. Ponderazio hori faktore hauek bilduz lortzen da:

– Hamar urte honetako populazioaren aldaketa. Ponderazioa aldaketa portzentualaren zati osoa izanen da, gehienekoa ehuneko 20 izanen delarik.

– 15 bizilagun edo gehiago dituzten populazio entitateen kopurua. Ponderazioa batetik goitiko populazio entitateengatik ehuneko 5natakoa izanen da, gehienekoa ehuneko 20 izanen delarik.

– Populazio sakabanatua. Ponderazioa udalerriko populazio sakabanatuaren populazio guztiarekiko portzentaiaren zati osoa izanen da, gehienekoa ehuneko 20 izanen delarik.

b) Hezkuntza gastuetarako esleitua banatuko da udalerri bakoitzean 16 urte edo gutxiago dituen populazioarekiko zuzeneko proportzioan Foru Komunitatekoaren aldean.

c) Osasun eta gizarte zerbitzuetako gastuetarako esleitua honelaxe banatuko da:

– Ehuneko 40, gastuaren arabera ponderaturiko populazioa kontuan hartuz, 4.2 idazatian aurreikusiari jarraikiz.

– Ehuneko 30, udalerri bakoitzean Enpleguaren Institutu Nazionalean hilero inskribaturik dauden langabetuen urteroko batez bestekoarekiko zuzeneko proportzioan, Foru Komunitateko batez bestekoaren aldean.

– Gainerako ehuneko, 30 udalerri bakoitzean 64 urte edo gehiago dituen populazioarekiko zuzeneko proportzioan, Foru Komunitateko populazio horren aldean.

d) Herrilan eta hirigintza gastuetarako esleitua banatuko da hiri lurzoru garbiarekiko zuzeneko proportzioan. Hori izanen da planoaren araberako zabaleraren (azalera grafikoaren) eta lurzatien batura den aldetik duen zabaleraren (azalera alfanumerikoaren) arteko aldearen ondoriozkoa, Foru Komunitatekoaren aldean.

e) Kultura eta kirol gastuetarako esleitua honelaxe banatuko da:

– Ehuneko 70, gastuaren arabera ponderaturiko populazioarekiko zuzeneko proportzioan, arau honetako 4.2 artikuluan aurreikusirikoari jarraikiz.

– Gainerako ehuneko 30, udalerri bakoitzean 16 urte edo gutxiago dituen populazioarekiko zuzeneko proportzioan, Foru Komunitateko populazio horren aldean.

4. Transferentzia arrunten gainerako ehuneko 14 zerga bidezko dirusarrerak eta herrilurretako aberastasuna eskuratzeko ahalmena erabiltzeko mailaren adierazgarritzat jotzen diren aldagaien arabera banatuko da. Ondorio horietarako, eragile hauek asignatuko eta kenduko dira, hurrenez hurren:

– Ehuneko 15, Udal bakoitzaren Nafarroaren batez besteko zerga ahaleginarekiko zuzeneko proportzioan, udalerri bakoitzeko populazioaren arabera ponderaturik. Zerga ahalegintzat joko da lurralde kontribuzioagatik eta lizentzia fiskalagatik kitaturiko eskubideek duten portzentaia, ordainarazpen horrek legez baimenduriko gehieneko tasa eta errekarguak eta, hiri izaerako ondasunen kasuan, merkatuko balioaren zenbatespenak aintzakotzat hartuz lekarkeen dirusarreraren aldean. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kasuan, kitaturiko eskubideek duten portzentaia 1,4ko errekargu orokorra izanik gutxieneko kuoten bidezko dirusarreraren aldean izanen da.

1998 eta 1999rako zerga ahalegina kalkulatzeko, 1996ko eta 1997ko ekitaldietako udaletako Kontuetako datuak hartuko dira, hurrenez hurren, edo, halakorik ezean, kitaturiko eskubideen ziurtagirietakoak, lehengo era eta kontzeptuetan, udalek ekitaldi bakoitzeko maiatzaren 15a baino lehen igorririk. 1997ko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga 1998ko ekitaldiari egozten bazaio, horren ekitaldiari periodifikatuko zaio. Horrelakorik ezean, udal bakoitzaren zerga ahaleginari dagokion datutzat aplikatuko da beste udal batzuek igorririk, Toki Administrazioko Departamentuan dauden datuetatik ondorioztaturiko zerga ahaleginaren gutxieneko balioaren ehuneko 70.

– Gainerako ehuneko 1, udal bakoitzaren herrilurretako ondasunen balio katastralarekiko zuzeneko proportzioan murriztuko da, kasuan kasuko udalerrian dauden kontzeju guztienetakoa barne, Foru Komunitateko udal guztienetakoaren aldean.

**5. artikulua.** 1. Banatzeko formulak, lehengo artikuluan aurreikusirikoaren ondoriozkoak, Eranskinean agertzen den 3. koadroan biltzen diren aldagaiekiko zuzeneko proportzioan izendatuko die hasiera batez udalei ekitaldi bakoitzerako transferentzia arrunten fondoa.

2. Udalerrian kontzejuak dauzkaten udalen kasuan, aurreko puntuan zehazten den formula aplikatzearen ondorioz udalari dagokion zenbatekoa murriztuko da, hasiera batez kontzeju bakoitzari bi hauen arteko aldea emateko:

a) Kontzeju bakoitzeko hiri lurzoru garbiaren udalerriarekiko proportzioa, aurreko zenbateko ondoriozkoaren ehuneko 29,49, eta

b) Kontzejuko herrilurretako balio katastralaren udalerri osoarekiko proportzioa, herrilurretako balio katastralagatik udalari murrizturiko zenbatekoari aplikaturik.

3. Aldagaien balioak lortzeko, Eranskinean agertzen den 4. koadroan aipatzen diren iturburuetara joko da.

**6. artikulua.** 1998 eta 1999rako udalei bermatzen zaie toki entitateek 1997ko ekitaldirako Nafarroako Ogasun Publikoko tributuetan parte hartzeko fondotik transferentzia arruntengatik harturiko zenbatekoa, hala bada, ekitaldi horretan zerga ahaleginengatik harturikoa murriztu ondoren.

Kontzejuei bermatzen zaie ekitaldi horietarako 1997ko ekitaldirako populazioagatik hartu zituzten transferentzia arruntetako kopurua.

Banatzeko formula aplikatzeagatik berme hori lortzen ez dutenek bermea izan dezaten, bermatuak baino diru gehiago lortzen duten udal eta kontzejuei hasiera batez asignaturikoetatik behar diren diru-kopuruak kenduko dira, dagokien bermearen igoerarekiko proportzioan.

**7. artikulua.** Udal eta kontzeju bakoitzari dagokion azkeneko asignazioa aurreko artikuluen aplikazioaren ondoriozkoa izanen da.

**8. artikulua.** Toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoko tributuetan parte hartzeko fondoko diru-kopuruak lau aldiz ordainduko dira ekitaldi bakoitzean, hiruhileko natural bakoitzeko lehenengo hamabostaldian, hain zuzen ere.

Lehenengo bi ordainketak aurreko ekitaldian behin betikoz harturikoaren ehuneko 25 eginen dute. Kontzejuen kasuan, 1998ko ekitaldirako, populazioagatik aurreko ekitaldian harturikoaren portzentaia bera hartuko dute.

Hirugarren ordainketan, toki entitate bakoitzaren urteroko azkeneko asignazioa kalkulatuko da eta aurreko ordainketak asignazio horren ehuneko 75 egin arte osatzen dituen kopurua ordainduko. Laugarren hiruhilekorako gainerako dirua ordainduko da.

**9. artikulua.** Kapital transferentzietarako partaidetzaren zenbatekoa 1997-1999rako Toki Azpiegituren Hirurteko Planari buruzko apirilaren 2ko 3/1996 Foru Legean eta hori garatzen duten xedapenetan xedaturikoaren arabera banatuko da.

**10. artikulua.** Iruñeko Udalari "Iruñeko Hiriko Hiriburutza Agiria" delakoagatik eman beharrekoari dagokionez, beste laguntzen partaidetzaren zenbatekoa arautuko da agiri hori ematen duen Foru Legean xedaturikoaren arabera.

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eman beharrekoa Foru Lege honetako 8. artikuluan transferentzia arruntetarako aurreikusi bezala ordainduko da.

**11. artikulua.** Toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoko tributuetan parte hartzeko fondoko baliabideak, kasuan kasuko ekitaldi ekonomikoan erabiltzen ez badira, hurrengo ekitaldian sartuko dira. Kapital transferentzien kasuan, gerakinen kontuetako aurrezkiek aurreko ekitaldietako obretako kostu handiagoak finantzatuko dituzte.

## Xedapen Iragankorra

Partehartzeko Fondo Orokorraren transferentzia arrunten dotazioek 1998an izango duten gehikuntza, beste arau batzuek abiapuntutzat har dezaketena, hurrengoa izango da, kontzeptuen homogeneotasuna dela-eta: 1997. urterako transferentzia arrunten kopuruaren eta 1998. urterako kopuruaren arteko aldea, azken horri hauxe kenduko zaiolarik: 1.202.600.000 pezeta, Estatuarekin hitzartu gabeko aintzinako zergetatik heldu direnak.

1999. urterako, Partehartzeko Fondo Orokorraren transferentzia arrunten dotazioen gehikuntza, beste arau batzuek abiapuntutzat har dezaketena, hauxe izango da: Foru Komunitateko Kontsumorako Prezioen Indizea, 1997ko ekainetik 1998ko ekainera neurtua.

## Azken Xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

ERANSKINA

1. Koadroa

| Populazio tarteak | Ponderatzeko koefiziente biderkatzailea |
|---|---|
| 40.000ti goiti | 1,42 |
| 10.001etik 40.000ra bitarte | 1,30 |
| 4.001etik 10.000ra bitarte | 1,01 |
| 2.001etik 4.000ra bitarte | 1,12 |
| 501etik 2.000ra bitarte | 1,12 |
| 1etik 500ra bitarte | 1 |

2. Koadroa

| Gastu funtzionalak | Ehunekoa |
|---|---|
| Gastu orokorrak | % 41,86 |
| Hezkuntza gastauak | % 8,01 |
| Osasun eta gizarte zerbitzuetako gastuak | % 7,61 |
| Herrilan eta hirigintza gastuak | % 29,49 |
| Kultura eta kirol gastuak | % 13,03 |

3. Koadroa

| Aldagaia | Ehunekoa |
|---|---|
| Gastuaren arabera ponderaturiko pop. | % 64,92 |
| Osaketaren arabera ponderaturiko pop. | % 10,04 |
| 16 urte edo gutxiago dituen populazioa | % 2,86 |
| 65 urte edo gehiago dituen populazioa | % 0,55 |
| Langabetu kopurua | % 0,55 |
| Hiri lurzoru garbia | % 7,08 |
| Zerga ahalegina | % 15 |
| Herrilurretako balio katastrala | % -1 |

4. Koadroa

| Aldagaia | 1998ko ekitaldia | 1999ko ekitaldia |
|---|---|---|
| Populazioa | 1998-1-1eko errolda ber. | 1999-1-1eko errolda ber. |
| 10 urteko pop. ald. | 1988-1998ko errolda | 1989-1999ko errolda |
| Populazio entitateak | 1996ko errolda | 1996ko errolda |
| Populazio sakabanatua | 1996ko errolda | 1996ko errolda |
| < 16 urteko populazioa | 1998-1-1eko errolda ber. | 1999-1-1eko errolda ber. |
| > 65 urteko populazioa | 1998-1-1eko errolda ber. | 1999-1-1eko errolda ber. |
| Langabetuen kopurua | 1997 urtea | 1998 urtea |
| Hiri zoru garbiaren zab. | 1998-1-1eko datuak | 1999-1-1eko datuak |
| Zerga ahalegina: | | |
| –Kitaturiko dirusarrerak<br>–Merkatuko balioa<br>–Balio katastrala | 1996 urtea | 1997 urtea |
| Herrilurretako balio kat. | 1998-1-1eko datuak | 1999-1-1eko datuak |

# Zenbait zerga, Pertsona Fisikoen Errentaren gainekoa, Ondarearen gainekoa, Sozietateen gainekoa eta Oinordetzaren gainekoa, alegia, hein batean aldatzen dituen Foru Lege proiektua

*AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK*

Biltzarreko Erregelamenduko 128 artikuluan ezarritakoa betez, zenbait zerga, Pertsona Fisikoen Errentaren gainekoa, Ondarearen gainekoa, Sozietateen gainekoa eta Oinordetzaren gainekoa, alegia, hein batean aldatzen dituen Foru Lege proiektuari aurkeztu zaizkion emendakinak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzen da. Proiektu hori 1997ko azaroaren 20ko 78 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 2an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## OSOAREKIKO EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

Eskatzen du:

Nafarroako Gobernuari itzul dakion Zenbait zerga, Pertsona Fisikoen Errentaren gainekoa, Ondarearen gainekoa, Sozietateen gainekoa eta Oinordetzaren gainekoa, alegia, hein batean aldatzen dituen Foru Legearen proiektua.

Zioak: Foru Lege proiektua, IU/EB de Navarra talderaren iritziz, Konstituzioaren eredu fiskalaren aurkako erasoa da; ondare irregularrei buruzko gehikuntzengatiko tributazioaren aurrerakortasun fiskala izugarri murriztu nahi da eta horren ondorioz Konstituzioan zehaztutako fiskalitatearekin bat ez datorren fiskalitate berria sortzen ari da.

IU/EBren iritziz, plusbalien tributaziorako proposatzen den berrikuntzak Konstituzioaren aurrerakortasun printzipioa eta gaitasunaren araberako tributazioaren printzipioa, hain zuzen ere Konstituzioaren 31.1. artikuluan dagoena, urratzen ditu.

Beste neurri batzuek, Sozietateen gaineko Zergaren karga-tasa orokorra murriztea, edo pentsio-planetarako ekarpenen ondoriozko zerga-oinarriaren murrizketaren handitzea, konparazione, ez dira beharrezkoak Nafarroako IU/EBren iritziz, eta enpresarioen errentei eta errenta altuei baino ez diete mesederik egiten.

PPk Estatuan garatu eta UPN Nafarroara egokitu dituen politika neoliberaletan txertatzen den zerga-erreforma da, funtsean. Nafarroako IU/EBk ordezkatzen duen ezkerretik, ezezko borobil eta garbia baino ezin die eman.

## ARTIKULUEI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

### 1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

**1. EMENDAKINA**

**«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

1.artikuluko seigarren idazatiko 3. zenbakia kentzeko emendakina (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legearen 16. artikuluko azken lerroaldea).

Zioak: Ez dira ondasunezko ordainsaritzat hartzen enpresa batek bere langileei akzioak edo partizipazioak ematea dohainik edo merkatuko prezioaz beheiti. Horrek esan nahi du zerga-betebeharrik gabeko lan errentetarako ordainsarien eredu bat eratzen ari dela. IU/EB de Navarra-k ez du uste egokia denik eredu hori bultzatzea.

**2. EMENDAKINA**

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko emendakina.

Foru Lege proiektuaren 1. artikuluko 12, 13, 14, 15, 20, 21, 31 eta 32 zenbakiak kentzea proposatzen da, alegia, Pertsona Fisikoen Errengaren gaineko Zerbari buruzko Foru Legearen 40, 41, 43, 68 eta 71. artikuluei, seigarren xedapen iragankorrari eta xedapen iragankor berriari dagozkienak. Horiek guztiak plusbalien tributazioari buruzkoak dira.

Zioak: Erreformaren oinarri gisa aldarrikatzen dena da Estatuaren gainerako lurraldeetan indarra duen tributuen araubideaz bestelakorik mantentzea ez dela egokia. Gu ez gaude ados balorazio horrekin, ezin dakiokeelako uko egin gure araubide propio eta bereizi mantentzeari, Foru Komunitatearen eta haren hiritar gehienen berezko interesei dagokien bezala, beti ere dirubilketa justuagoa eginez eta pizgarri fislaken sistema bat edukiz interesgarrien jotzen diren kontuetan. Horiek ez dute zertan ezinbestez bat etorri Estatuko gainerako lurraldeetako irizpideekin edo helburuekin.

Adierazten da aldi batean gehikuntzarengatik zergarik ordaindu behar ez izateak berekin ekarri dituela inbertsioak gelditzea eta jarduera ekonomikoa neurri batean geratzea. Ezin gara bat etorri adierazpen horiekin, izan ere ez dituztelako aldean ekartzen haiek justifikatzeko behar diren datu objektiboak. Aitzitik, ez dago horrelako arrazoirik, eta jarduera ekonomikoaren neurgailu aipagarrienak aintzat hartuz gero, erraz egiaztatu ahalko da joera hobea dagoela gure lurraldean, orain ezarri nahi den kapitalen errentengatiko onuren sistema duten bestelako lurraldeekin alderaturik.

Proposatzen den sistema atzerakoia da, PFEZa zerga proportzional bihurtzen du, nahiz eta zerga horren zergatia aurrerakortasuna bermatzea den. Onura ekartzen die errenta altuei eta epe motzean espekulatzeko errentei, are larriagoa eginez egunean-egunean zeharkako zergen dirubilketa indartzen duen eta zerga zuzenetan merketze nabariak ematen dituen –oraingo honetan bezala– tributu-sistemaren justizia eza. Ezin izango da zuzena izan aurrerakortasuna galtzen duen sistema bat, non gehien irabazten duenak ez baitu gehiago ordaintzen, baldin eta dauzkan dirusarrerak kapitaletik heldu bazaizkio, izan ere ordainketa horiek % 20an finkatuta gelditzen direlako. Dirusarrerak lanetik etorriz gero, berriz, ordaindu beharrekoa progresiboki igotzen da.

Gure ustez, oraingo sistema onuragarriagoa da ez bakarrik epe labur eta epe luzeko inbertsoreentzat, alegia, gizartearen klase ertainekoak izan, ondasun handirik eduki ez eta finantzen espekulazkioaren arriskuetara oso emanak ez direnentzat.

### 3. EMENDAKINA

**FERMIN CIAURRIZ GOMEZ ETA BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**

FORU PARLAMENTARIEK AURKEZTUA

1. artikulua (hamabi), 40. artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: Plusbalien titulazioari buruz Proiektuak sartu nahi duen sistemak kalte egiten dio epe luzeko aurrezkiari, eta Errentaren gaineko Zergaren aurrerakortasuna urratzen du.

### 4. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko Hamabi. idazatia kentzeko emendakina (PFEZari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legearen 40. artikulua)

Zioak: IU/EB de Navarrak uste du Foru Lege proiektuko ondare irregularrei buruzko aldaketen tributazio eredua Konstituzioaren aurkakoa eta injustua dela eta aurrerakortasuaren printzipioa urratzen duela.

### 5. EMENDAKINA

**FERMIN CIAURRIZ GOMEZ ETA BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**

FORU PARLAMENTARIEK AURKEZTUA

1. artikulua. Hamahiru, 41. artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: Plusbalien titulazioari buruz Proiektuak sartu nahi duen sistemak kalte egiten dio epe luzeko aurrezkiari, eta Errentaren gaineko Zergaren aurrerakortasuna urratzen du.

### 6. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua, Hamahirugarren idazatia (PFEZari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legearen 41. artikulua).

Zioak: IU/EB de Navarrak uste du Foru Lege proiektuko ondare irregularrei buruzko aldaketen tributazio eredua Konstituzioaren aurkakoa eta injustua dela eta aurrerakortasuaren printzipioa urratzen duela.

## 7. EMENDAKINA

**FERMIN CIAURRIZ GOMEZ ETA BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**

FORU PARLAMENTARIEK AURKEZTUA

1. artikulua. Hamalau. 43.1.a) artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: Plusbalien titulazioari buruz Proiektuak sartu nahi duen sistemak kalte egiten dio epe luzeko aurrezkiari, eta Errentaren gaineko Zergaren aurrerakortasuna urratzen du.

## 8. EMENDAKINA

**FERMIN CIAURRIZ GOMEZ ETA BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**

FORU PARLAMENTARIEK AURKEZTUA

1. artikulua. Hamabost. 43.1.b) artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: Plusbalien titulazioari buruz Proiektuak sartu nahi duen sistemak kalte egiten dio epe luzeko aurrezkiari, eta Errentaren gaineko Zergaren aurrerakortasuna urratzen du.

## 9. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua, hemeretzigarren idazatia, bat zenbakia, 4. puntua b) letra (PFEZari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legearen 67. artikuluko b) letra) aldatzeko emendakina.

Hauxe da proposatzen dugun testua:

b) 750.000 pezeta urteko

Zioak: Uste dugu Lege proiektuan proposatzen den igoera gehiegizkoa dela eta errenta altuenei beste inori ez diela onurarik ekartzen.

## 10. EMENDAKINA

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Aldatzeko emendakina

1. artikuluko 19. zenbakia aldatzea proposatzen dugu, alegia PFEZari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legearen 67. artikulua. 1.4.b). Pentsio Planen gehienezko mugaren zenbateko osoarako proposatzen den 1.000.000 pezetako zenbatekoaren ordez 1.250.000 jartzea.

Zioak: epe ertain eta luzeko aurrezkia sustatzeko pentsio planak garrantzi handiko tresna dira, Gizarte Segurantzaren araubidearen osagarria izateaz gainera.

## 11. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko hogeigarren izazatia (PFEZari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legearen 68. artikulua) kentzeko emendakina.

Zioak: IU/EB de Navarrak uste du Foru Lege proiektuko ondare irregularrei buruzko aldaketen tributazio eredua Konstituzioaren aurkakoa eta injustua dela eta aurrerakortasuaren printzipioa urratzen duela.

## 12. EMENDAKINA

**FERMIN CIAURRIZ GOMEZ ETA BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**

FORU PARLAMENTARIEK AURKEZTUA

1. artikulua. Hogeita bat. 71. artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: Plusbalien titulazioari buruz Proiektuak sartu nahi duen sistemak kalte egiten dio epe luzeko aurrezkiari, eta Errentaren gaineko Zergaren aurrerakortasuna urratzen du.

## 13. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua, hogeigarren idazatia (PFEZari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legearen 71. artikulua) kentzeko emendakina.

Zioak: IU/EB de Navarrak uste du Foru Lege proiektuko ondare irregularrei buruzko aldaketen tributazio eredua Konstituzioaren aurkakoa eta injustua dela eta aurrerakortasuaren printzipioa urratzen duela.

**14. EMENDAKINA**

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko hogeigarren idazatia aldatzeko emendakina.

71. artikulua. Karga-tasa.

1. Etekinek osatzen duten likidazio-oinarri ez-erregularraren zatia ondoko tasen arteko handienarekin kargatuko da:

a) Karga-eskala oinarri horren 100eko 50ari aplikatzetik heldu den batezbesteko tasa.

b) Foru Lege honen 70. artikuluaren bi zenbakian zehaztutako batezbesteko karga-tasa.

2. Ondare gehikuntzek osatutako likidazio oinarri ez-erregularraren zatia honela kargatuko da:

Ondoko tasen arteko handiena erabiliko da:

a) Karga-eskala oinarri horren 100eko 50ari aplikatzetik heldu den batezbesteko tasa.

b) Foru Lege honen 70. artikuluaren bi zenbakian zehaztutako batezbesteko karga-tasa.

Aipatu batezbesteko tasa –ezin izango da 25 baino altuagoa izan– biderkatu behar da tasa hori zati 25 eginda ateratzen den zatidurarekin.

Era horretan zehaztutako zenbatekoa izango da ondare gehikuntzek osaturiko oinarri likidagarri irregularrari aplikatu ahalko zaion karga-tasa.

Baldin eta aurreko idazatiak aipatzen duen karga-tasa ehuneko 20 baino gehiago bada, batezbesteko hori aplikatu ahalko zaio, beti ere ondare gehikuntza irregularrak sortu dituen ondare-elementuen kostubidezko besterentzea dela-eta lortu den guztizko zenbatekoa ondoko beharkizunak betez berrinbertitzen bada:

1. Berrinbertsioa Ondareari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 10, 11, 13, 15 eta 16. artikuluetan aipaturiko ondare-elementuetan egin beharko da, besterentzea egin edo kobraketa izan –epekako edo prezioa geroratua duten eragiketetan– eta hiru hilabeteko epean.

2. Berrinbertsioa gauzatu den ondare-elementuek sujetu pasiboaren ondarean iraun beharko dute bi urteko epean, gutxienez. Ez da ulertuko baldintza hori betegabe dagoela baldin eta aipaturiko elementuak arestiko epea bukatu baino lehen transmititzen badira, beti ere lorturiko zenbatekoa gero berrinbertitzen denean aurreko idazatian ezarritako terminoetan, harik eta arestiko bi urteko epea betetzen den arte.

3. Berrinbertsioa agirien bidez justifikatu beharko da zergaren kasuan kasuko aitorpena aurkezten denean.

Berrinbertsio partziala egiten bada, ehuneko 20ko karga-tasa izango duen oinarri likidagarria lortzeko, besterentzearen guztizko zenbatekoan inbertitu den guztizko zenbatekoak suposatzen duen batezbestekoa aplikatu beharko zaio karga-tasa horri.

Subjektu pasiboak, zenbaki honetan ezarritako beharkizunak betetzen ez badira, murriztu zen kuota osoa ingresatu beharko du bai eta geroratzeak ekarri dituen korrituak, ez-betetze hori gertatu zen zergaldiari dagokion kasuan kasuko Zergaren aitorpena aurkezten den unean.

Zioak: Aurrerakortasun handiagoa ezartzea ondare-gehikuntza irregularrei dagokien oinarri likidagarriari aplikatu dakiokeen kargan, gehienezko tipoa % 25ean jarriz eta murrizketa bat ezarriz aipatu batezbestekoa baino karga-tasa baxuagoa daukaten sujetu pasiboei.

**15. EMENDAKINA**

**FERMIN CIAURRIZ GOMEZ ETA BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**

FORU PARLAMENTARIEK AURKEZTUA

1. artikulua. Hogeita bi. 72. artikuluko bigarren lerroaldea kentzeko emendakina.

Zioak: Plusbalien titulazioari buruz Proiektuak sartu nahi duen sistemak kalte egiten dio epe luzeko aurrezkiari, eta Errentaren gaineko Zergaren aurrerakortasuna urratzen du.

**16. EMENDAKINA**

**«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko hogeita bigarren idazatia (PFEZari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legearen 72. artikulua) kentzeko emendakina.

Zioak: Uste dugu kuota osoaren murrizketa handitzeko egin den proposamena negatiboa dela.

**17. EMENDAKINA**

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Foru Lege proiektuaren 1. artikuluaren hogeita bigarren zenbakia (PFEZari buruzko Foru Legearen 72. artikuluari dagokiona) kentzeko emendakina.

Zioak: Proiektuaren 5. aritkuluko laugarren zenbakian aurkezturiko emendakinarekin bat etortzeko.

**18. EMENDAKINA**

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko emendakina

1. artikuluko hogeita bost zenbakiko 2. lerroaldea, alegia, PFEZari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legearen 74.6 artikuluaren aldaketari dagokiona, kentzea proposatzen da. Artikulu horrek dio kenkarietarako erregelamendura jo behar dela, zenbatespen objetiboaren erregimenaren menpeko sujeto pasiboak enpresa edo lanbide jardueretan aritzen badira.

Zioak: Saiatu behar da jarduera guztietan dirusarrera eta gastu errealengatik tributatzera; beraz, zenbatespen objektiboko erregimenak kendu beharko lirateke, bai koefizienteka bai moduluka, bide horietatik lor litezkeen kenkariak erraztu gabe. Argi dago errentak zehazteko sistema hau diru bilketa justua eragozten duen bide legala dela, solatapekoak baztertzen duena sistema horren menpekoetatik.

**19. EMENDAKINA**

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Aldatzeko emendakina.

1. artikuluko hogeita bederatzi zenbakiko 3. idazatia, alegia, PFEZari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legearen 102. artikuluari dagokiona, aldatzea proposatzen da. Ofiziozko itzulketari eta korrituen erreklamazioari buruzkoa da. Testu hura kendu eta hau jarriko da:

“3. Itzulketa egiteko epea iraganik, eragiketa hori burutu ez bada, ofizioz ekingo zaio likidazioa egiteari eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 24. artikuluan ezarri den moduan sorturiko berandutza korrituak ordaintzeari.”

Zioak: Itzulketa ofizioz egiten bada, berandutza korrituak ere ordaindu behar dira, erreklamazioa idatziz aurkeztu beharraren zama kenduta eta likidazioa egiteko erabiltzen den aplikazio-irizpide bera erabiliz. Justizia eta berdintasun printzipio bat da.

**20. EMENDAKINA**

**FERMIN CIAURRIZ GOMEZ ETA BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**
FORU PARLAMENTARIEK AURKEZTUA

1. artikua. Hogeita hamabi. Hamalaugarren Xedapen Iragankorra kentzeko emendakina.

Zioak: Plusbalien titulazioari buruz Proiektuak sartu nahi duen sistemak kalte egiten dio epe luzeko aurrezkiari, eta Errentaren gaineko Zergaren aurrerakortasuna urratzen du.

**21. EMENDAKINA**

**«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko hogeita bigarren idazatia, hamalaugarren xedapen iragankor berria, kentzeko emendakina.

Zioak: IU/EB de Navarrak uste du Foru Lege proiektuko ondare irregularrei buruzko aldaketen tributazio eredua Konstituzioaren aurkakoa eta injustua dela eta aurrerakortasuaren printzipioa urratzen duela.

Xedapen Gehigarriak erregimen berezi bat biltzen du 1997ko urtarrilaren 1a baino lehen eskuratutako ondare-elementuetatik heldu diren ondare-gehikuntza eta murrizketetarako onura fiskalak gehitzeko.

## 2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

**22. EMENDAKINA**

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Foru Lege proiektuaren 2. artikuluko hurrengo zenbakiak kentzeko emendakina.

– Bat, PFEZari buruzko F.L.ren 25. artikuluari buruzkoa.

– Bi, PFEZari buruzko F.L.ren 26. artikuluari buruzkoa.

– Zortzi, PFEZari buruzko F.L.ren 74. artikuluaren 5 zk.ko b) letrari buruzkoa.

– Bederatzi, PFEZari buruzko F.L.ren 76. artikuluari buruzkoa.

– Hamar, PFEZari buruzko F.L.ren 87.1 artikuluari buruzkoa.

– Hamabi, PFEZari buruzko F.L.ren Xedapen iragankor berriari eranstekoa.

## 23. EMENDAKINA

**«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Foru Lege proiektuaren 2. artikuluaren hirugarren idazatiari aurkeztutako emendakina, alegia, PFEZari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legearen 37. artikuluari dagokionari.

6/1992 Foru Legearen 37. artikuluko 1. arautik hurrengo lerroaldea kentzea: “Nolanahi dela ere gastu kengarritzat hartuko dira funtzionarioek egindako kotizazioak nahitaezko Mutualitateei, Foru Lege honetako 18. artikuluan aipatutakoak ez direnei, eta Umezurtzen Ikastetxeei edo antzeko Erakundeei egindakoak”.

Zioak: Mutualitateei egindako kotizazio guztien tratamendua homogeneizatzeaz, izan ere guztiei zerga hori arautzen duen Foru legearen 67. artikuluan aurreikusitako murriztapena zerga-oinarrian aplikatu ahalko baitzaie.

## 24. EMENDAKINA

**«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Foru Lege proiektuaren 2. artikuluaren bosgarren atalari aurkeztutako emendakina, alegia, PFEZari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legearen 65. artikuluari dagokionari.

6/1992 Foru Legearen 65. artikuluaren 1. zenbakiko c) letra aldatzeko emendakina:

“c) Honela kalkulaturiko etekinetan, ulertuko da barne hartzen direla enpresa edo lanbide jarduerei loturiko elementuen kostubidezko eskualdaketatik ondorioztatzen diren ondare-gehikuntza garbiak, baldin eta eskualdaketa horien urteko zenbatekoa 500.000 pezetatik goitikoa ez bada.”

Zioak: Testua gramatikaren aldetik zuzentzea, Zergari buruzko Foru Legearen 39. artikuluko 3. idazatiko a) letran xedatutakoarekin bat etor dadin.

## 25. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

2.2. artikuluko zazpigarren idazatia kentzeko emendakina (PFEZari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legearen 74.1.a), lehen lerroaldea)

Zioak: Ez dugu uste justifikatuta dagoenik proposatzen den kenkariaren igoera.

## 26. EMENDAKINA

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legearen 74.5.b), 76 eta 87.1 artikuluak aldatzen dituzten Foru Lege proiektuaren 2 artikuluko zortzi, bederatzi eta hamar zenbakiak kentzeko emendakina.

Zioak: Etxebizitza erosteagatiko kenkaria, aldatu nahi da, izan ere 1998ko urtarrilaren 1etik aurrera kenkari horren barrenean ondokoak egoteko moduan: erosteagatik ordaindutako zenbatekoak eta korritu finantzarioak. Gainera kenkari horretarako eskubidea ematen duen oinarria, korriturik gabe, ez luke 10 edo 20 milioiko muga gaindituko, famili unitate baten kasuan.

Uste dugu garrantzitsua dela oraingo sistema mantentzea interesetatik kendu daitekeen gastuari dagokionez eta erosketaren edo mailegua amortizatzearen kostuaren gaineko kuotaren % 15ari dagokionez, ondoko arrazoiengatik:

a) Errenta ertain eta baxuetako zergadun gehienak kalteturik aterako dira, beren onura fiskalak jaitsi eginen direlako proposatzen diren aldaketen ondorioz.

b) Oraingo sistema beste laguntza bat da oraingo kargak eramaten eta etxebizitza erostearen kostu handiak eta gainkarga finantzarioa laguntzeko, ikusirik alokairuak ez direla oso erakargarriak eta ekaintzak ere urri direla.

c) Ezberdintasun bat sortzen da oraingo legeak onura ekarritako zergadunen –ez dituzte beren eskubideak galduko– eta proposatzen den erregimen berriak ukituko dituen erosle berrien artean.

Ezberdintasun hori saihets liteke indarrean dagoen legedia mantenduz, beti ere 1998ko urtarrilaren 1etik aurrera muga bat ezarriz etxebizitza bakarra izan eta bera ohiko etxebizitza duten zordunentzat.

### 27. EMENDAKINA

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Aldatzeko emendakina.

Proiektuaren 2. artikuluko zortzi zenbakiaren 2. lerroaldea aldatzeko emendakina. PFEZari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legearen etxebizitzen zaharberritzerako baldintzei buruzko 74.5.b) artikuluari dagokio. Proiektuaren testuaren ordez ondokoa jarriko da:

“Horretarako, zaharberritzeak, bizileku eta hiri ondarearen zaharberritzearen babespenari dagokionez legez eska daitezkeen baldintzak bete beharko ditu. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Departamentuak, kasuan kasuko txosten teknikoak egin ondoren, egiaztagiri bat eginen du betetze hori bermatzeko, baita zaharberritzaileak inolako dirulaguntzarik eskatu ez duenean ere.”

Zioak: Gaur egun zailtasun handiak daude kenkari horrekin, betebehar horiek betetzeari buruzko berme nahikorik ez dagoelako; horrexegatik, egokia dirudi eginkizun hori Departamentu eskudunari esleitzea.

### 28. EMENDAKINA

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Aldatzeko emendakina.

Proiektuaren 2. artikuluko zortzi zenbakiaren 5. lerroaldea aldatzeko emendakina. PFEZari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legearen 74.5.b) artikuluari dagokio. Etxebizitzak erosi edo zaharberritzea oinarrian kenkari izateari buruzkoa da. Proiektuko testuaren ordez ondokoa jarriko da:

“Kenkari honen oinarria extebizitza erosi edo zaharberritzeko ordaindutako diru kopuruek osatuko dute, Erregistroetako eta notaritzetako aldaberriketa, subrogazio eta abarrei buruzko legean bildutako gastuak _beti ere ersoleak ordaindutako prozesu horiekin lotura zuzena dutenak_ barne. Erosketa edo zaharberritzea finantzatu bada besteren kapitalarekin, kenkariaren oinarri izanen dira printzipala eta korrituak amortizatzeko erabiltzen diren kopuruak eta gainerako finantzaketa-gastuak.”

Zioak: Argi uztea erosketarekin edo zaharberritzearekin zuzenean loturiko gastu guztiak, finantzaketa gastuak barne, sartzen direla.

### 29. EMENDAKINA

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Aldatzeko emendakina.

Proiektuaren 2. artikuluko bederatzi zenbakia aldatzeko emendakina, hain zuzen ere 76. artikuluari hiru zenbaki berria eransteari dagokiona. Oinarriaren guztizko zenbatekorako 10.000.000 pezeta proposatu bada, kopuru horren ordez 20.000.000 pezeta jarri behar dira.

Zioak: Zenbatekoak egokiagoak izatea etxebizitzek merkatuan duten balioaren aldera.

### 30. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluaren bederatzigarren idazatia aldatzeko emendakina (PFEZari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legearen 76. artikuluari zenbaki berria eranstea).

10.000.000 pezeta dioen tokian, 15.000.000 pezeta esan behar du.

Zioak: Uste dugu proposatutako zenbatekoa, hau da, etxebizitza erosteko inbertsio bezala egiten diren kenketei dagozkien oinarrien guztizko batuketa, ez dela aski.

### 31. EMENDAKINA

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Aldatzeko emendakina.

2. artikuluaren hamar zenbakia aldatzeko proposamena. PFEZari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legearen 87.1 artikuluaren aldaketari dagokio. Oinarrien guztizko zenbateko bezala proposatzen diren 20.000.000 pezetako kopuruaren ordez 30.000.000 pezeta jartzea.

Zioak: Zenbatekoak egokiagoak izatea etxebizitzek merkatuan duten balioaren aldera.

## 3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

### 32. EMENDAKINA

**«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Bat. Foru Lege proiektuaren 3. artikuluaren titulua aldatzeko emendakina.

“3. artikulua. 1997ko urtarrilaren 1etik aitzina hasten diren zergaldietarako ondorioekin, Zenbait zergaren hein bateko aldaketari eta beste zerga neurri batzuei buruzko abenduaren 29ko 25/1994 Foru Legeko 7. artikuluko 1. zenbakiko a) letrari beste idazkera bat eman zaio, hurrengo edukiarekin:”

Bi. Abenduaren 29ko 25/1994 Foru Legearen 7. artikuluaren 1. zenbakiko a) letra aldatzeko emendakina, izan ere haren testua Foru Lege proiektuaren 3. artikuluaren bidez aldatzen baita.

Gaztelaniazko bertsioan “a) Que por sí solos o conjuntamente con entidades...”

Zioak: Idazketa teknikoki hobetzea.

## 5. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

### 33. EMENDAKINA

**«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

5. artikuluaren bigarren zenbakiari lerroalde bat gehitzeko emendakina. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 27. artikuluari dagokio.

27. artikuluaren bat zenbakiaren a) letrari bigarren lerroalde bat eranstea. Ondokoa erantsiko da:

“Koefizienteak honela aplikatuko dira:

– ondare elementua erosten edo produzitzen den urtearekin eguneratutako erosketa-prezio edo produkzio-kostuaren gainean. Hobekuntzei aplikatuko zaien koefizientea haiek egin diren urteari dagozkionak izanen dira.

– Zergen ikuspuntutik kengarriak diren amortizazioen gainean, beti ere ondare elementuei dagozkienean, kasuan kasuko urteari begiratuz.”

Zioak: Hobekuntza teknikoa, monetaren baliogalera zuzentzeko koefizienteak nola aplikatu zehazkiago ezartzeko.

### 34. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

5. artikuluaren laugarren idazatia kentzeko emendakina (Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 50.1 artikuluari dagokio).

Zioak: Uste dugu proposatzen den zergen presioa murriztea ez dela beharrezkoa eta ez dagoela justifikaturik.

### 35. EMENDAKINA

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Foru Lege proiektuaren 5. artikuluaren lau zenbakia kentzeko emendakina. Sozietateen gaineko Zerga arautzen duen Foru Legearen 50.1 artikuluari dagokio.

### 36. EMENDAKINA

**FERMIN CIAURRIZ GOMEZ ETA BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**

FORU PARLAMENTARIEK AURKEZTUA

5. artikulua (lau) artikulua, 50.1 artikulua. Honela idatziko da:

“Nafarroan ezarriko den tasa orokorra % 32,5ekoa izanen da.”

Zioak: Gai honetan daukagun jarrerarekin bat etortzeko eta Gobernuak bidali zuen azken proiektuari jarraituz.

### 37. EMENDAKINA

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Aldatzeko emendakina.

5. artikuluaren lau zenbakia aldatzea proposatzen da, hain zuzen ere Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 50.1 artikulua aldatzeari dagokiona. Proposatzen den karga tasaren ordez ondokoa jartzea:

“a) 0 eta 10.000.000 pezeta bitartean dagoen likidazio-oinarriaren zatiari, 100eko 25a.

b) 10.000.001 eta 15.000.000 pezeta bitartean dagoen likidazio-oinarriaren zatiari, 100eko 30a.

c) Likidazio oinarriaren gainerakoari, 100eko 35a.”

Zioak: Sozietate gehienak txikiak eta familiartekoak direla ikusirik, uste dugu % 35eko tasa gehiegizkoa dela, izan ere enpresa txiki horiek direlako enplegu zuzena sortzen dutenak eta beren irabaziak kapitalizatzen dituztenak enpresa mantentzeko eta lehiakor bihurtzeko. Gainera, irabaziek pertsona fisikoetarako batezbesteko tasa baino karga-tasa altuago eta bakar bat daukate. Irabaziak zehazteko gardentasun handiagoa ekarriko luke.

Gainera ezin da ahaztu badaudela enpresa batzuk % 20ko zergak ordaintzen dituztenak, beren eduki sozial handiarengatik; enpresa txiki eta ertainen sareak ere halako eginkizuna daukate eta gure industriaren oinarria dira.

## 38. EMENDAKINA

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Foru Lege proiektuaren 5. artikulua bost zenbakia. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 59.4 artikuluari dagokio.

100eko 20ko tasari buruzko aipamenaren ordez 100eko 25eko tasa jarri behar da 59.Lau.c).b') artikuluaren azken lerroaldean.

Zioak: 1. emendakinarekin bat etortzeko.

## 39. EMENDAKINA

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko emendakina.

5. artikuluaren bederatzi zenbakia kentzeko emendakina. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 71.2 artikuluari dagokio. 200.000 pezetako kenkaria proposatzen da aurreko ekitaldiko plantila osoaren batezbestekoa murrizten bada ere, mugagabeko lan-kontratua duen plantilaren batezbestekoa gehitzen bada.

Zioak: Arrazoizko zalantzak daude neurri horrek enpleguan daukan eraginkortasunari buruz; gainera, kontratu mugagabea saritzen da guztizko plantilaren batezbestekoa murriztearen aldea. Saritu behar dena da guztizko batezbesteko plantila (mugagabeko kontratuak eta aldi baterakoak) handitzea enplegua sortuz, eta garrantzi handiagoa eman behar zaio horri kontratu motari baino.

## 40. EMENDAKINA

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Foru Lege proiektuaren 5.Bederatzi artikulua aldatzeko emendakina. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 71. artikuluari dagokio.

“71. artikulua. Kenkaria, enplegua sortzeagatik.

1. 700.000 pezetako kenkaria aplikatu ahalko da aurreko urteko ekitaldiarekin alderatuta plantilako batezbestekoa gehitzeko urtean hartzen duten epe mugagabeko lan-kontratazio bakoitzeko.

Plantilako batezbesteko gehiketa kalkulatzeko urteko/lan kontratu mugagabedunak soilik kontatuko dira. Lanaldi partzialeko kontratudunen kasuan benetan lan egindako orduen proportzioaren arabera kontatuko dira.

Kenkari osoak ezin gaindituko du entitatearen plantila osoaren urtea/pertsona kopuruaren batezbesteko gehikuntzari aipatu ekitaldian legokiokeena, edozein izanda ere kontratazio mota.

2. Aurreko ekitaldiko plantila osoaren batezbestekoa mantenduz, lan-kontratu mugagabekoen plantilaren batezbestekoa entitatearen plantila osoaren batezbesteko gehikuntzaren gainetik gehitzen bada, gehikuntza bien arteko diferentziagatik 250.000 pezetako kenkaria aplikatuko da urtea/pertsona bakoitzeko.

Aurreko ekitaldiko plantila osoaren batezbestekoa murriztuta igotzen bada plantilan lan kontratu mugagabea daukatenen batezbestekoa, aurreko idazatiko kenkaria diferentzia positiboaren gainean gauzatuko da, alegia, aipatu gehikuntzaren eta

plantila osoaren batezbestekoaren murrizpenaren artean gertatzen den diferentziaren gainean.

3. Aurreko 1 eta 2 zenbakietan aurreikusitako kenkariak 900.000 eta 350.000 pezetakoak izanen dira, hurrenez hurren, urtean kontratatzen diren langile minusbaliatu bakoitzeko, apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 39. artikuluan xedatutakoarekin bat, bereizirik kalkulatuta, aurreko zenbakietan ezarritako prozedurak erabiliz.

4. Sozietate berriak sortzeko sozietate eta enpresa indibidualak bategiteak, zatitzeak edo eraldatzeak, eta oro har, enpresen ondorengotza edo jarraipenen kasuan, ez du berez enplegua sortzeagatiko kenkaria aplikatzeko biderik emanen.

5. Kenkariaren oinarriak, 28.2 artikuluak aipatzen dituen kasuetan, harremanetan dauden entitateen egoera bateratua izan beharko du kontutan.

6. Aurreko zenbakietan ezarritako kenkariak bateraezinak izanen dira euren artean.

7. Hitzarmen kolektiboaren bidez lanaldiaren 100eko 10eko murrizpena, gutxienez, eta plantila osoaren zein mugarik gabeko lan kontratupeko plantilaren 100eko 10eko gehikuntza, gutxienez, onartzen duten enpresek, ondorengo 5 urteetan esandakoa beteko dutela konpromezuarekin, ondorengo zerga-onura hauek edukitzeko eskubidea izango dute:

1. Daukaten ibilgetu materialarentzako zein erosi berriarentzako amortizazio-askatasuna.

2. 63. artikuluak aipatzen duen kenkariaren portzentaia 100eko 25era igotzea.

3. Artikulu honetako 1. eta 3. zenbakiek aipatzen duten kenkaria 100eko 25 igotzea. Enplegugehikuntza neurtzeko erabiliko den erreferentziako plantila lanaldiaren murrizpena eta lana banatzea onartu dituen hitzarmena indarrean sartu baino lehenagoko urtekoa izango da.

4. Zerga-onura hauek lortu nahi dituzten entitateek ezarpen-plan bat aurkeztu beharko diote zerga-administrazioari, inbertsio programa eta enplegua sortzea bilduko dituena, lanaldia nola berrantolatuko den eta lana nola banatuko den adierazten duen proiektu teknikoarekin batera.”

Zioak: Enplegu berrien sarrera sustatzea, kenkarien zenbatekoa igoaz gaur egun ezarrita daudenetara heldu arte.

## 7. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

### 41. EMENDAKINA

**«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Foru Lege proiektuaren 7. artikulua, Oinordetzaren gaineko Zergari buruzko Arauaren 178. artikuluaren 3 zenbakiari dagokiona, aldatzeko emendakina.

1970eko apirilaren 10eko Arauaren 178. artikuluaren 3 zenbakiaren b) letrako azken lerroaldea aldatzeko emendakina:

“Jabe soilak bere eskubidea usufruktudunari transmititzen badio, edo biek hirugarren bati transmititzen badiote, erosketa horiei dagozkien likidazioak besterik ez da exigituko.”

Zioak: Hobekuntza teknikoa argi gera dadin likidazioak igortzen zaizkionari buruzko erreferentzia hirugarrenari eta usufruktudunari ere egiten zaiela.

## XEDAPEN GEHIGARRIEI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

### 42. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarrietako lehena kentzeko emendakina. Inbertsioetarako erreserba berezia.

Zioak: Uste dugu ez dela beharrezkoa 1998 urtera luzatzea Inbertsioetarako erreserba bereziaren indarraldia.

### 43. EMENDAKINA

**«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Foru Lege proiektuaren Xedapen gehigarrietako lehen, Inbersioetarako erreserba bereziari buruzkoa, aldatzeko emendakina.

“Lehenbizikoa. Inbertsioetarako erreserba berezia.

Sujetu pasiboek Sozietateen gaineko Zergari buruzko 1996ko abenduaren 30eko 24/1996 Foru legearen IV. Tituluko XI. Kapituluko 2. Sekzioak aipatutako erreserba berezirako dotazioak egin

ahalko dituzte, 1998ko urtarrilaren lehenetik aurrera hasitako lehen bi ekitaldietan ateratako kontabilitate-mozkinen kargura."

Zioak: Ikusirik zein den gaurko ekonomiaren abagunea, aldi baterako luzatzea pizgarri fiskal hori; pizgarriaren helburua enpresen autofinantzaketa eta kapitalizazioa sustatzea da.

## XEDAPEN IRAGANKORRARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

### 44. EMENDAKINA

**FERMIN CIAURRIZ GOMEZ ETA BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**

FORU PARLAMENTARIEK AURKEZTUA

Prezioa geroratu zaien ondare-gehikuntzen araubide iragankorra izeneko Xedapen Iragankorra kentzeko emendakina.

Zioak: Aurkeztu ditugun beste emendakin batzuekin bat etortzeagatik.

### 45. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Prezioa geroratu zaien ondare-gehikuntzen araubide iragankorra izeneko Xedapen Iragankorra kentzeko emendakina.

Zioak: IU/EB de Navarrak uste du Foru Lege proiektuko ondare irregularrei buruzko aldaketen tributazio eredua Konstituzioaren aurkakoa eta injustua dela eta aurrerakortasuaren printzipioa urratzen duela.

Xedapen Iragankorrak 1997ko urtarrilaren 1a baino lehen agertu diren prezioa geroratu zaien ondare-gehikuntzetarako irabazi fiskalak gehitzen dituen araubide berezia ezartzen du.

### 46. EMENDAKINA

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Ondoko edukia izango duen Xedapen Iragankorra gehitzeko emendakina:

"Bigarrena. Ondare irregularren gehikuntzak berrinbertitzea.

1997an lortutako ondare gehikuntzetarako, PFEZari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legearen 71. artikuluaren 2 zenbakiko 1. idazatiak aipaturiko hiru hilabeteko epea, 1998ko urtarrilaren lehenetik aurrera hasiko da zenbatzen."

Ondorioz, Foru Lege proiektuaren oraingo Xedapen Iragankorrari Lehena izena eman beharko zaio.

Zioak: Foru Lege proiektuaren 1. artikulua. Hogeitabat izenekoari aurkeztutako emendakinaren ondorioa. PFEZari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legearen 71. artikuluari dagokio.

## AZKEN XEDAPENEI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

### 47. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapenetako Lehena aldatzeko emendakina.

Ondokoa esango du:

"Foru Lege honen edukiaren kontra doazen lerrun bereko edota beheragoko xedapen guztiak indargabe gelditurko dira."

Zioak: Parlamentuko izapidearen ondorioz, baliteke proiektuaren erredakzioak zentzurik ez izatea.

## ZIOEN AZALPENARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

### 48. EMENDAKINA

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpenean, hurrengo esaldiaren ordez "… ehuneko 20 baino gehiago izan daiteke", hauxe jarri: "... ehuneko 25 baino gehiago izan daiteke".

Zioak: 1 zenbakiko emendakinaren ondorioa da.

# Toki azpiegituren alorreko 1997-1999 Plan Bereziari buruzko Foru Lege proiektua

*AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK*

Biltzarreko Erregelamenduko 128 artikuluan ezarritakoa betez, toki azpiegituren alorreko 1997-1999 Plan Bereziari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztu zaizkion emendakinak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzen da. Proiektu hori 1997ko azaroaren 25eko 81 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 10ean

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## 1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

**1. EMENDAKINA**

**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

1. artikuluari aurkezturiko emendakina. Hona nola geratuko litzatekeen:

“Foru Lege honen xedea 1997-1999rako toki azpiegituren alorrean plan berezi bat ezartzea da, 1997-1999rako Toki Azpiegituren Hirurteko Planari buruzko apirilaren 2ko 3/1996 Foru Legean aurreikusia osatuz. Eranskinean aipatzen diren toki entitateak ukituko ditu, Foru Lege honen ondorioetarako eskualde behartsutzat jotzen baitira, toki azpiegiturei dagokienean.”

Zioak: Toki entitateen sailkapena saihestea, egitura fondoei dagokion sailkapenean interferentziarik ez sortzeko.

## XEDAPEN GEHIGARRIARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

**2. EMENDAKINA**

**«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Beste Xedapen Gehigarri bat jartzea. Honela dio:

Nafarroako Gobernuak 1998-1999 urteetarako toki azpiegituren alorreko plan berezi bat egin eta bidaliko dio Foru Parlamentuari, 1998ko lehen hiruhilekoan. Baliabideak Nafarroako eskualde behartsuenetan biltzea ahalbidetzeko irizpideak jarriko dira bertan eta lehentasunak ere ezarriko dira.

Zioak: Nafarroako Gobernuak informazio gutxi bidali du toki entitateak eta baliabideak ezartzeko irizpideak finkatzeko. Hortaz, beharrezkotzat jotzen dugu foru plan bat egitea eta bertan neurriak hartzea garapen eramangarria posible egiteko benetako politika ahalbidetzeko, Nafarroako eskualde behartsuen lurralde oreka lortzeko asmoz.

## ERASKINARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

**3. EMENDAKINA**

**BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

Hurrengo toki entitateak erantsi:

Arantzako Udala

Berako Udala

Iturengo Udala

Irunberriko Udala

Zangotzako Udala

Urraul Beitiko Udala

Eloko Udala

Azkarateko Kontzejua-Araitz

Uztegiko Kontzejua-Araitz

Intzako Kontzejua-Araitz

Arribe-Atalluko Kontzeju Elkartuak-Araitz

Lesakako Udala

Zareko Udala

Ziordiko Udala

Lekunberriko Udala

Altsasuko Udala

Arbizuko Udala

Irañetako Udala

Uharte Arakilgo Udala

Arruazuko Udala

Lakuntzako Udala

Etxarri-Aranazko Udala

Irurtzungo Udala
Bakaikuko Udala
Iturmendiko Udala
Urdiaingo Udala
Olaztiko Udala
Albiasuko Kontzejua
Alliko Kontzejua
Azpirotz-Lezaetako Kontzejua
Baraibarko Kontzejua
Etxarriko Kontzejua
Errazkingo Kontzejua
Gorritiko Kontzejua
Iribasko Kontzejua
Madozko Kontzejua
Mugiroko Kontzejua
Oderizko Kontzejua
Oibarko Udala
Igantziko Udala
Urdazubiko Udala
Sunbillako Udala
Astizko Kontzejua
Leitzako Udala
Larraungo Udala
Adazko Kontzejua
Ihabengo Kontzejua (Basaburua)
Anueko Udala

Zioak: Toki entitate guzti horiek 5B eta 2 helburuko eskualdeetan daude 1991tik aitzina, eta landa eremuko eskualde behartsutzat hartzen dira Europako Batasunaren ondorioetarako. Kontraesana da Nafarroako Komunitatetik murriztea.

### 4. EMENDAKINA

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen Gehigarrian aipatzen den eranskinari aurkezturiko emendakina, gehitzekoa.

Hurrengo toki entitateak gehitzea proposatzen da:

010 ALTSASU
020 ARAITZ
AZKARATE
UZTEGI
ARRIBE-ATALLU
022 ARANTZA
027 ARBIZU
037 ARRUAZU
044 BAKAIKU
073 ZIORDIA
084 ETXARRI ARANATZ
122 UHARTE ARAKIL
127 IRAÑETA
129 ITUREN
130 ITURMENDI
138 LAKUNTZA
144 LARRAUN
ALBIASU
ALLI
AZPIROTZ-LEZAETA
BARAIBAR
ETXARRI
ERRAZKIN
GORRITI
IRIBAS
MADOTZ
MUGIRO
ODERITZ
153 LESAKA
159 IRUNBERRI
172 ELO
189 OLAZTI
212 ZARE
216 ZANGOTZA
240 URDIAIN
242 URRAUL BEITI
250 BERA
908 LEKUNBERRI
904 IRURTZUN

### 5. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA»**
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Toki entitateen zerrendari gehitzeko emendakina.

Toki entitateen zerrendari hurrengo Udala gehitzeko proposamena egiten da: Arantza.

Zioak: Udal honek sartzeko eskaria egin du eta sartu behar dela uste dugu, Nafarroako Gobernuak ez duelako batere argi utzi toki entitateak eskualde behartsutzat jotzeko irizpideak eta, batez ere, emendakin honetan aipatzen dena kanpoan uzteko arrazoiak.

## 6. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Toki entitateen zerrendari gehitzeko emendakina.

Toki entitateen zerrendari hurrengo Udala gehitzeko proposamena egiten da: Bera.

Zioak: Udal honek sartzeko eskaria egin du eta sartu behar dela uste dugu, Nafarroako Gobernuak ez duelako batere argi utzi toki entitateak eskualde behartsutzat jotzeko irizpideak eta, batez ere, emendakin honetan aipatzen dena kanpoan uzteko arrazoiak.

## 7. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Toki entitateen zerrendari gehitzeko emendakina.

Toki entitateen zerrendari hurrengo Udala gehitzeko proposamena egiten da: Ituren.

Zioak: Udal honek sartzeko eskaria egin du eta sartu behar dela uste dugu, Nafarroako Gobernuak ez duelako batere argi utzi toki entitateak eskualde behartsutzat jotzeko irizpideak eta, batez ere, emendakin honetan aipatzen dena kanpoan uzteko arrazoiak.

## 8. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Toki entitateen zerrendari gehitzeko emendakina.

Toki entitateen zerrendari hurrengo Udala gehitzeko proposamena egiten da: Irunberri.

Zioak: Udal honek sartzeko eskaria egin du eta sartu behar dela uste dugu, Nafarroako Gobernuak ez duelako batere argi utzi toki entitateak eskualde behartsutzat jotzeko irizpideak eta, batez ere, emendakin honetan aipatzen dena kanpoan uzteko arrazoiak.

## 9. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Toki entitateen zerrendari gehitzeko emendakina.

Toki entitateen zerrendari hurrengo Udala gehitzeko proposamena egiten da: Zangotza.

Zioak: Udal honek sartzeko eskaria egin du eta sartu behar dela uste dugu, Nafarroako Gobernuak ez dituelako batere argi utzi toki entitateak eskualde behartsutzat jotzeko irizpideak eta, batez ere, emendakin honetan aipatzen dena kanpoan uzteko arrazoiak.

## 10. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Toki entitateen zerrendari gehitzeko emendakina.

Toki entitateen zerrendari hurrengo Udala gehitzeko proposamena egiten da: Urraul Beiti.

Zioak: Udal honek sartzeko eskaria egin du eta sartu behar dela uste dugu, Nafarroako Gobernuak ez dituelako batere argi utzi toki entitateak eskualde behartsutzat jotzeko irizpideak eta, batez ere, emendakin honetan aipatzen dena kanpoan uzteko arrazoiak.

## 11. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Toki entitateen zerrendari gehitzeko emendakina.

Toki entitateen zerrendari hurrengo Udala gehitzeko proposamena egiten da: Elo.

Zioak: Udal honek sartzeko eskaria egin du eta sartu behar dela uste dugu, Nafarroako Gobernuak ez dituelako batere argi utzi toki entitateak eskualde behartsutzat jotzeko irizpideak eta, batez ere, emendakin honetan aipatzen dena kanpoan uzteko arrazoiak.

## 12. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Toki entitateen zerrendari gehitzeko emendakina.

Toki entitateen zerrendari hurrengo Kontzejua gehitzeko proposamena egiten da: Azkarate (Araitz).

Zioak: Kontzeju honek sartzeko eskaria egin du eta sartu behar dela uste dugu, Nafarroako Gobernuak ez dituelako batere argi utzi toki entitateak eskualde behartsutzat jotzeko irizpideak eta, batez ere, emendakin honetan aipatzen dena kanpoan uzteko arrazoiak.

## 13. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Toki entitateen zerrendari gehitzeko emendakina.

Toki entitateen zerrendari hurrengo Kontzejua gehitzeko proposamena egiten da: Uztegi (Araitz).

Zioak: Kontzeju honek sartzeko eskaria egin du eta sartu behar dela uste dugu, Nafarroako Gobernuak ez dituelako batere argi utzi toki entitateak eskualde behartsutzat jotzeko irizpideak eta, batez ere, emendakin honetan aipatzen dena kanpoan uzteko arrazoiak.

## 14. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Toki entitateen zerrendari gehitzeko emendakina.

Toki entitateen zerrendari hurrengo Kontzejua gehitzeko proposamena egiten da: Intza (Araitz).

Zioak: Kontzeju honek sartzeko eskaria egin du eta sartu behar dela uste dugu, Nafarroako Gobernuak ez dituelako batere argi utzi toki entitateak eskualde behartsutzat jotzeko irizpideak eta, batez ere, emendakin honetan aipatzen dena kanpoan uzteko arrazoiak.

## 15. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Toki entitateen zerrendari gehitzeko emendakina.

Toki entitateen zerrendari hurrengo Kontzejua gehitzeko proposamena egiten da: Arribe-Atallu (Araitz).

Zioak: Kontzeju honek sartzeko eskaria egin du eta sartu behar dela uste dugu, Nafarroako Gobernuak ez dituelako batere argi utzi toki entitateak eskualde behartsutzat jotzeko irizpideak eta, batez ere, emendakin honetan aipatzen dena kanpoan uzteko arrazoiak.

## 16. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Toki entitateen zerrendari gehitzeko emendakina.

Toki entitateen zerrendari hurrengo Udala gehitzeko proposamena egiten da: Lesaka

Zioak: Udal honek sartzeko eskaria egin du eta sartu behar dela uste dugu, Nafarroako Gobernuak ez dituelako batere argi utzi toki entitateak eskualde behartsutzat jotzeko irizpideak eta, batez ere, emendakin honetan aipatzen dena kanpoan uzteko arrazoiak.

## 17. EMENDAKINA

**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Toki entitateen zerrendari gehitzeko emendakina.

Toki entitateen zerrendari hurrengo Udala gehitzeko proposamena egiten da: Zare

Zioak: Udal honek sartzeko eskaria egin du eta sartu behar dela uste dugu, Nafarroako Gobernuak ez dituelako batere argi utzi toki entitateak eskualde behartsutzat jotzeko irizpideak eta, batez ere, emendakin honetan aipatzen dena kanpoan uzteko arrazoiak.

**18. EMENDAKINA**

**«IZQUIERDA UNIDA-**
**EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Toki entitateen zerrendari gehitzeko emendakina.

Toki entitateen zerrendari hurrengo Udala gehitzeko proposamena egiten da: Ziordia.

Zioak: Udal honek sartzeko eskaria egin du eta sartu behar dela uste dugu, Nafarroako Gobernuak ez dituelako batere argi utzi toki entitateak eskualde behartsutzat jotzeko irizpideak eta, batez ere, emendakin honetan aipatzen dena kanpoan uzteko arrazoiak.

**19. EMENDAKINA**

**«IZQUIERDA UNIDA-**
**EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Toki entitateen zerrendari gehitzeko emendakina.

Toki entitateen zerrendari hurrengo Udala gehitzeko proposamena egiten da: Lekunberri.

Zioak: Udal honek sartzeko eskaria egin du eta sartu behar dela uste dugu, Nafarroako Gobernuak ez dituelako batere argi utzi toki entitateak eskualde behartsutzat jotzeko irizpideak eta, batez ere, emendakin honetan aipatzen dena kanpoan uzteko arrazoiak.

**20. EMENDAKINA**

**«IZQUIERDA UNIDA-**
**EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Toki entitateen zerrendari gehitzeko emendakina.

Toki entitateen zerrendari hurrengo Udala gehitzeko proposamena egiten da: Altsasu.

Zioak: Udal honek sartzeko eskaria egin du eta sartu behar dela uste dugu, Nafarroako Gobernuak ez dituelako batere argi utzi toki entitateak eskualde behartsutzat jotzeko irizpideak eta, batez ere, emendakin honetan aipatzen dena kanpoan uzteko arrazoiak.

**21. EMENDAKINA**

**«IZQUIERDA UNIDA-**
**EZKER BATUA DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Toki entitateen zerrendari gehitzeko emendakina.

Toki entitateen zerrendari hurrengo Udala gehitzeko proposamena egiten da: Arbizu.

